

2018ko urriaren 10ean ,UDALBATZAK egindako bilkura arruntaren AKTA. 3

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 19,30tan, Udalbatzarra bildu da, Idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate andreak - Nekane Arrizabalaga - zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

ZINEGOTZIAK : Jon Ander Azpiroz
Asier Ibarguren
Sergio Cubero
Aitor Arregui
Eñaut Guruzeaga
Hodeiza Sallent
Marije Arruabarrena

Igor Iturain, Kontxi Lazkano eta Arkaitz Iruretagoiena ez ziren bertaratu.

Idazkari-Kontuhartzailea: Xabier Osa

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- Aktaren onarpena

2018ko uztailaren 26an, eginiko udalbatzarren akta ,ontzat eman da aho batez.

“Kreditu gaikuntza bidezko kreditu aldaketaren 2018-KALD-4-00 zenbakidun espedientea

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena eta ziurtagiria aztertu dira. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Alkateak egin nahi diren obren azlpena egin du, banan banan.

Eñautek , bozkatu aurretik, agerian jarri nahi izan du zalantzak daudela kontratuen esleipen mugen inguruan.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta aldeko 8 boturekin,beraz legezko gehiengoz, honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
6	INBERTSIO ERREALAK	176.781,20
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		176.781,20

SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
2 (SARRERAK)	ZEHARKAKO ZERGAK	50.781,20
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	126.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		176.781,20

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailatza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

3.- Eskari-galderak

Eñautek ordenantza fiskalen onarpenaren epe-mugaz galdetu du.

Alkateak, bere aldetik, azaldu du ez duela 2019rako ordenantzarik aldatzeko asmorik.

Bilera, 19,45tan bukatu da, eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezen, Idazkariak hau ematen du, Aian 2018ko urriaren 10ean.

IDAZKARI -KONTUHARTZAILEAK